

FOKUANAN

LATINOAMERIKA,
ESTU ETA LARRI



FOKUAN

(2)

Antolatzaila:

Garapenean Laguntzeko Zerbitzua

Gasteizko Udaleko Kirolaren, Osasunaren
eta Garapenerako Lankidetzaren Saila

www.vitoria-gasteiz.org

Azaleko argazkia: © Edu León

**EUROPA BILTZAR-JAUREGIKO JARDUERAK
(Gasteiz hiribidea, 85)**

Sarrera librea, lekuak bete arte.

Ekitaldia hasteko 30 minutu falta direla hasi ahalko da sartzen. Eskuineko alboko atetik (iparraldeko sarrera).

**PROIEKZIOA FLORIDA ZINEMA-ARETOETAN
(San Prudentzio kalea 22-24)**

Gonbit-txartelak: [vitoria-gasteiz.org/
eskolafeminista](http://vitoria-gasteiz.org/eskolafeminista)

**BISITA GIDATUA ERAKUSKETARA
(Andre Maria Zuriaren plaza)**

Erakusketaren ondoan hasiko da bisita, jarritako orduan.

Ekitaldi guztiak doakoak dira.

[Antolatzaileek ez dute beren gain hartuko programan parte hartzen dutenek esaten dituztenen gaineko erantzukizunik]

Andre Maria Zuriaren plaza
2023ko urriaren 10etik 29ra

ARGAZKI-ERAKUSKETA

*LATINOAMERIKA,
ZAURI BIZITAN BORROKAK
ETA MEMORIA HAN-HEMEN*

Eduardo Galeano idazle uruguitarrak hirurogeita hamarreko hamarkadan hizpide zituen zain urratuak (euskarazko itzulpena, 2021ekoa: *Latinoamerikaren zain urratuak*; jatorrizkoa, gaztelaniaz: *Las venas abiertas de América Latina*) ez dira oraindik sendatu, ezta itxi ere. Garai bateko bortxazko mendetasuna eta indarrezko lur-desjabetzek beste molde bat hartu dute gaur egun: transnazionalak, aldian aldiko gobernuekiko itunak, eta arpilatze-molde berriak. «Ezdeusek» bizi duten –oraindik ere– eta Galeanok hain ondo deskribatu zuen zapalkuntzaren historia da. «Ezdeus» horiek beren historia berridatzi eta zauriak itxi nahi dituzte.

Eskualde honetako jendea borroka batean bizi da betidanik, kolperik kolpe, erresistentzia betiereko batean... Horregatik esaten da Latinoamerika kontatu nahi bada, derrigorrez erabili behar direla gerundioa eta etengabeko egintza. Argazki hauek betiereko mugimendu horretan bizi diren pertsonetako batzuk irudikatzen dituzte: Ekuadorreko indigenak, estraktibismoaren aurka protestan, Quitoko kaleak hartu ostean; Kolonbiako emakumeak, indarkeriaren aurka ahotsa altxatu dutenak, maite dituzten pertsona hilak ahazteari uko eginez; eta Hondurasko familia nekazariak, ura biziarekin ere defendatzen dutenak.

Edu León argazkilariak hamarkada bat baino gehiago eman du borroka bizian diren lurralde horietan, erresistentzia txiki guzti horien alboan. 2022koak dira lagin honetan jasotako lanak. Human Rights Defenders Memorial erakundearen aburuz, giza eskubideen aldeko 401 defendatzaile hil zituzten mundu zabalean urte horretan, horietako 291 Latinoamerikan; hartara, borrokaren, ordainaren, justiziaren eta memoriaren beharra egiaztatzen da. Izan ere, premia larri horrek ez du apenas oihartzunik izan itsasoaren alde honetan.



Edu León

10 urtez jardun du Latinoamerikan prentsa-argazkilari. Orain, Madrilen, giza-eskubideen eta gizarte-gatazken arloak jorratzen ditu, eta migrazio-kontuez aritu da luze. Azken urteotan uztartu egiten ditu kazetari-lana eta irudiaren bidezko sensibilizazio- eta hezkuntza-prozesuak, eta lengoia narratibo berrien aldeko apustua egiten du errealitateak ezagutzera emateko, komunikabide handietatik urrun arituz.

Nazioarteko erakundeekin ere lan egin du, esaterako, Gurutze Gorria, ACNUR, Amnistia Internacional, Intermón Oxfam eta Ayuda en Acción. Zenbait hedabiderekin lankidetzan aritu da – El País, 5W aldizkaria, Univisión Noticias eta Getty Images (Latinoamerikarako)–, eta bere argazkiak nazioarteko hedabideetan argitaratu dira – The Guardian, Time, Newsweek, Vice News edo The New York Times–.

Sari hauek aipa daitezke, besteak beste: Quito 2016 “Fotoperiodismo para la Paz” saria lortua du; Ohorezko Aipamena RM argitaletxeko argazki-liburuen lehiaketan (Bartzelona 2017); Gabriel García Márquez 2017 sarirako izendatua izan da, eta sari horren finalista izan da 2019an eta 2020an; hirugarrena POY Latam 2020 sarian; lehena POY International 2023 sarian, eta finalista Leica Oskar Barnack 2023 sarian.

URR
16
astelehena

12:00 >> Andre Maria Zuriaren plaza
ERAKUSKETAREN INAUGURAZIOA

***LATINOAMERIKA ZAURI BIZITAN.
BORROKAK ETA MEMORIA
HAN-HEMEN***

BISITA GIDATUA, ERAKUSKETAN
Edu Leónen eskutik





URR

16

astlehena

19:00 >> Europa biltzar-jauregia

HITZALDIA

GUSTAVO PETRO Y LA PAZ POLÍTICA

Ezkerra boterera iristea mugarri izan da Kolonbia, behingoz, XXI. mendera begira jartzeko. Gerrarako moldekatutako herrialde hau –orain arte konfrontazioaren logikak zabaldu dituena–, herrialde baketsu gisa ulertu behar da, gerrillen eta talde paramilitarren armagabetzea gora behera. Indarkeria eta oraindik ere badiren talde armatuak alde batera utzita, Petrok lortu nahi duen bakeak egitura-aldaketak eskatzen ditu, eta horiek botere-taldeei eragiten die. Aldaketa horiek zenbait hamarkadez atzeratu eta saboteatu izan dira, eta, aurrera atera daitezten, eliteen sektoreekin itundu beharra dago, edo, aitzitik, elite horiei aurre egin. Horixe, beraz, hausnarketarako gaia.

8



Hizlaria: MARTA RUIZ, kazetari kolonbiarra. 1994an Antioquiako unibertsitatean graduatu zen, eta, 1996an, telebistarako libretoetako espezializazioa lortu zuen Bogotako Javeriana unibertsitatean. 2010ean, Ikasketa Politikoetako maisutza-gradua lortu zuen Kolonbiako unibertsitate nazionalan. 1995ean, telebistan lan egiten hasi zen, zehazki Caracol telebistan.



Canal Uno eta Canal Capitalen ere aritu zen. 1999az geroztik idatzizko kazetaritzan jardun du buru-belarri; lehenik *Cromos* aldizkarian eta, gero, *Semana* aldizkarian. Azken honetan, gatazken ataleko editore izan zen 2017ko amaierara arte. Zutabegile ere aritu zen *Arcadia* aldizkarian eta *Semana.com* digitalean. *Esta ciudad que no me quiere* hiri-kroniken liburua idatziz du. 2008an hainbat sari lortu zituen: Rey de España saria, parapolitikaren prozesuaren berri emateagatik; Giza Eskubideen arloko SIP saria eta Simón Bolívar saria, Kolonbian paramilitarrek erabiltzen dituzten beldur-metodoei buruzko *La barbarie que no vimos* kazetaritza-lan bereziagatik. 2018tik 2022ra artean, egia argitzeko, bizikidetzarako eta berriz ez gertatzeko Kolonbiako batzordeko eskuduna izan da (Comisión para el Esclarecimiento de la Verdad, la Convivencia y la No Repetición).

Aurkezpena: Carlos Martín Beristain, medikua, psikologian doktorea, egia argitzeko, bizi kidetzarako eta berriz ez gertatzeko Kolonbiako batzordeko eskuduna.



URR

17

astearta

19:00 >> Europa biltzar-jauregia

HITZALDIA

LA SALUD DE LA DEMOCRACIA EN AMÉRICA LATINA Y EL RECIENTE CICLO ELECTORAL: CRISIS INSTITUCIONAL, POLARIZACIÓN Y NUEVAS FORMAS DE PROTESTA

10 Latinoamerikak hainbat hauteskunde-ziklo bizi izan ditu azken hamarkadan, honakoak ezaugarri: gizarte-ezgonkortasuna, polarizazio ideologikoa, indar politiko tradizionalen higadura eta erakundeen izen onaren galera. Hautetsitako lider batzuk parlamentu zatikatuekin zein kontrakoekin itundu beharra dute. Beste batzuk oinarri populistak dituzten lidergo indartsuak dira, eta badira boterean enkistatutako erregimen autoritarioak ere, ezaugarri desberdinak gorabehera. Finantza- eta



osasun-krisiek areagotu egin dute eskualdeko pobrezia eta desberdintasuna. Egoera hori gehitu egin zaio ustelkeriarekin eta botere politiko eta ekonomikoaren arteko kolusioari, eta, horrenbestez, areagotu egin da gobernu eta erakundeekiko mesfidantza, hau da haustura soziala eta diskurtso populista baztertzailak. Hizlariak Latinoamerikako hainbat herrialdetako egoera sozio-politikoa izango du hizpide: Peru, Txile, Brasil, Kolonbia, Ekuador, Mexiko, El Salvador, Venezuela, Nikaragua edo Kuba.



Hizlaria: ANNA AYUSO, Nazioarteko Zuzenbide Publikoan doktorea eta Europako Ikasketen Masterra Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan (UAB). 2002tik CIDOBeko ikertzaile seniorra da Latinoamerikarako. Horren aurretik, bertako Nazioarteko Lankidetzaren Arloa (1996-2002) koordinatu zuen. Nazioarteko Zuzenbide Publikoko irakasle elkartua eta “Global INTEL” ikerketa-taldeko kidea Generalitateko AGAUREk aitortua eta finantzatua (2021-SGR00203, 2022-2024)–. Nazioarteko Ikasketen Bartzelona Institutuko (IBEI) irakasle elkartua. Zenbait aldizkaritako kontseiluetako kidea: *Revista CIDOB d’ Afers Internacionals* aldizkariko editore-kontseilukoa; Universidade do Estado do Río de Janeiroko Mural Internacional aldizkariko aholku kontseilukoa, *Comillas Journal for International Relations* aldizkariko aholku batzordekoa eta *América Latina Hoy* aldizkari-ko batzorde zientifikoko kidea. Foro Europa Cuba Jean Monnet Network foroaren koordinatzailea (2018-2022). GRIDALEko (Latinoamerikako eta Europako integrazioaren eta garapenaren inguruan hausnartzeko taldea) batzorde zientifikoko kidea. REEDESko (Garapenari buruzko ikerketen Espainiako Sarea) zuzendaritza batzordeko lehendakariordea.

Aurkezpena: Ana Rosa López de Uralde Gómez, Gasteizko Udaleko Kirolaren, Osasunaren eta Garapenerako Lankidetzaren zinegotzi ordezkaria.

[URR
18
asteazkena

© EDU LEÓN

12

19:00 >> Europa biltzar-jauregia**HITZALDIA*****EL PERIODISMO CRÍTICO FRENTE A LA DEMAGOGIA POPULISTA***

Erdialdeko Amerikak egoera nahasia bizi du: lurraldeotan askatasuna galtzen ari da, gero eta indartsuagoak diren autoritarismoek eta diktadorek duten boterearen ondorioz. Atzerakada demokratikoak nabarmenak dira autoritarismoak erakunde demokratiko guztiak desegin dituen lurraldeetan. Erdialdeko Amerikan demagogia populista da nagusi. Gizarteari eragiten dioten egiturazko arazo nagusiak konpondu beharrean, jokamolde bera erabiltzen dute edozein ahots disidente erasotzeko eta kriminalizatzeko, eta, hartara berehalakoan isiltasuna eta zentsura nagusitzea lortzeko. Populistek jomugan jarri dute kazetaritza kritikoa, eta indar egiten dute narratibak kontrolatzeko, eta babes popular handia izan dezakeen irudi bat eraikitzeko. Gaur egun ezin da

Erdialdeko Amerikako prentsa librea denik esan, bestela ezinezkoa litzateke inor boterean irmo ikustea herritarrei oinarrizko eskubideak kentzearen kontura.



Hizlaria: JULIA GAVARRETE, El Salvadorreko ikerketa arloko kazetaria, gai politikoetan, migrazioan eta giza eskubideen arloetan espezializatua. Gavarretek 2023ko Ortega y Gasset saria irabazi du, historiarik onenaren edo kazetaritza ikerketaren kategorian, *Una familia que no debe nada huye*

del Régimen de Excepción lanagatik.

El Faro egunkari digitaleko kazetari-taldeko kide da, 2021etik. Atzerriko hedabideetarako egindako ikerketen ekoizle ere izan da, eta bere lanak hainbat hedabidetan argitaratu dira: CNN, *The Intercept*, Univisión Noticias eta *USA Today*. *Las niñas suicidas de El Salvador* erreportajea parte hartu zuen, eta ikerketa horrek Emmy saria jaso zuen 2020an. 2019an, International Women's Media Foundation (IWMF) erakundeak kazetaritzaren etorkizunaren adierazle diren 19 emakumeen zerrendan aipatu zuen, eta Seattle International Foundation (SIF) erakundeak ere aitortu du bere kazetaritza-lana. Bekadun izan da honako hedabideetan: International Center for Journalist (ICFJ) eta Reporter ohne Grenzen (RSF).

Aurkezpena: Susana Alfonso Acebo, Gasteizko Udaleko Kirolaren, Osasunaren eta Garapenerako Lankidetzaren zuzendaria.

URR

19

osteguna

19:00 >> Florida zinema-aretoa, 1. aretoa

FILMA

MI PAÍS IMAGINARIO

(Patricio Guzmán, 2022). Txile, Frantzia. 83 min.

«2019ko urria: ezustezko iraultza bat, gizarte-asaldura bat. Milioi eta erdi pertsonak manifestazioa egin zuten Santiagoko kaleetan, demokrazia gehiago, bizitza hobea, hezkuntza- eta osasun-sistema hobek eta konstituzio berri bat eskatzeko.

Txilek memoria berreskuratu zuen...

Azkenik, egia bihurtu zen 1973ko ikasle-borroketatik hainbeste desio nuena».

[Patricio Guzmán]

14

